



He-Indartuz

Hedatze

Irakurketa eta Matematika Konpetentziak indartzea

2025 / 09 / 25




Saioaren egitura



1. Neurriaren jarraibideak

2. Hasierako proba



3. Irakasleen formakuntza

15 minutuko tartea

Zalantzak eta galderak chat bidez



1 atala:

Neurriaren jarraibideak



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Indartze Programa

Helburua.

Ikasleen kalitatea, ekitatea, inklusioa eta arrakasta hobetzea

Europar Batasuneko Kontseiluaren 2021/C/66/01 Ebazpena



Hasiera-maila %15-tik jaitsi 2030-rako

Zientziarako konp.

Matematikarako konp.

Irakurtzeko konpetentzia

Jarduketak

1

INDARTUZ LH 3-4

2

Indartze-programa

3

He-Indartuz

1. Batzorde tekniko bat sortzea

2. Aholkulari-taldea sortzea

3. Hezkuntza-baliabideak prestatzea

4. Irakurketa-idazketa prozesuaren metodologiei eta euskarri ezberdinetan konpetentzia bidez irakurtzen ikasteko estrategiei buruzko prestakuntza

5. Ikastetxeei haien irakurketa estrategia garaten laguntzea

6. Hezkuntza-komplexutasuna duten ikastetxeetan irakurtzeko konpetentzia hobetzea

7. Irakurketan eta matematikan zailtasunak dituzten ikasleei eskola-orduetatik kanpo hezkuntza-laguntzako neurriak 3. begirada

Testuingurua


- Hezkuntza emaitzak hobetzeko estrategia integrala 2024-2028 barruan.

7.jarduketa: ***Irakurtzeko konpetentzia eta matematika konpetentzian zailtasunak dituzten ikasleei eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntza eskaintzea.***

- Hedatze proiektuaren barruan: **He-Indartuz.**
- **DBH**ko ikastetxe publikoetan.



Helburuak




Helburu orokorra:

Irakurmenean eta matematikan ikasleen errendimendua hobetzea.

Neurriak honako hau bilatzen du:

- **Laguntza zuzen eta pertsonalizatuak** eskaintzea.
- **Eskola-erakunde malguak eta iraunkorrak** bultzatzea, barne-segregazioak sortu gabe.
- Errefortzua ikasleen **etengabeko ebaluazio**arekin lotzea.
- Jatorri sozialari, generoari edo aurreko hezkuntza-ibilbideei lotutako **errendimendu-arrakalak** murriztea.
- **Zentroak hobekuntza-unitate** gisa duen eginkizuna indartzea.

He-indartuz oinarrizko konpromisoak



- **Saioak** eskumen-helburu argiekin **planifikatzea**.
- Parte hartzen duten ikasleen **bertaratzea** **erregistratzea** eta **jarraipen sistematikoa** egitea.
- Irakasle arduradunentzako **prestakuntzan parte hartzea**.
- Ikasleen **irakasle-taldearekin koordinatzea**, koherentzia pedagogikoa ziurtatzeko.
- Neurriaren jarraipena ikastetxeko **ebaluazio- eta koordinazio-guneetan integratzea**.

Ordu esleipena eta antolaketa



- Astean **6, 9 edo 12 ordu** (DBH talde kopuruaren arabera) esleitu dira.
- Saioak **goizeko ohiko ordutegitik kanpo**, Hedatze proiekturako ezarritako ordu-tartearen barruan (sei saio astean hiru egunetan banatuta).
- Saio bakoitzak $\geq$ **60 minutu**.
- **Ikastetxe bakoitzak errefortzu-saioen banaketa egokitu** ahal izango du, barne-plangintza eta ikasleen beharren arabera, **erregulartasuna** eta **egonkotasuna bermatuz**.

Orduen banaketa eta maiztasuna



- Ordu-kreditu gehigarriak irakurmena eta matematika konpetentziak indartzeko.
- Orduen banaketa ikastetxearen erabakia da.
- Bi antolaketa modalitate:
 - Kontzentratua: errefortzu-orduak irakasle-kopuru txiki bati esleitzen zaizkio, asteen saio bat baino maiztasun handiagoa lortuz.
 - Antolaketa banatua: orduak hainbat irakasleren artean banatzen dira, taldeek saioen maiztasun txikiagoa izango dute.

Ikastetxearen antolamendu-dokumentuetan jaso beharko da banaketa

Plangintza eta dokumentazioa

Zuzendaritza-taldeak ikastetxeko **antolaketa-dokumentuetan txertatuko** du saioen plangintza, eta **DAEan** inplikaturako **irakasleen ordu-dedikazioa erregistratuko** du.

Ikastetxeak honako hauek gorde beharko ditu:

- parte hartzen duten **ikasleen izenen zerrenda**,
- **saioen plangintza**,
- **asistentzia-** eta **jarraipen-erregistroak**.



*Edozein **aldaketa erreferentziazko ikuskariari** jakinarazi, bideragarritasuna aztertzeko.*

Ikasleen hautaketarako irizpideak

- **Barne- edo kanpo-ebaluazioen emaitzak** (zentroko tresnak, proba diagnostikoak, etab.).
- Ohar sistematikoak eta **irakasle-taldearen** eta tutoretzen **balorazio partekatua**.
- Azkenaldiko **ibilbide akademikoaren** azterketa (gainditu gabeko gaiak, parte-hartze txikia, motibazioa galtzeko zantzuak).



Hasierako proba irakurketa eta matematika konpententziak

Berritzegune Nagusia eta Isei-Ivei

- **Ekitate- eta aniztasun irizpideak** ere kontuan hartu beharko dira: faktore sozioekonomikoetatik, generotik, hizkuntza- edo kultura-jatorritik eratorritako kalteberatasun-egoerei, oztopo emozionalei edo ikaskuntza-oztopoei ere.

Ikasleen hautaketa:



- Profila: irakurmen/matematika konpetetzieta zailtasunak dituzten DBHko ikasleak.
- Taldeak ez dira adinaren arabekoak, baizik eta konpetentzia mailaren arabekoak, **inter-maila**.
- Taldeen konfigurazioak ingurune inklusiboa bermatu behar du.
- **Bidelaguna**n parte hartzen duten ikasleek ez lukete aldi berean He-
indartuz programaren hartzaile izan behar.




Hautaketa DAEn dokumentatu:

Ikasle zerrenda, esleitutako errefortzu eremua eta irakasle arduraduna

Antolamendu-modalitatea

- Ohiko eskola-orduetatik kanpo
- Gutxienez 60 minutuko iraupena
- Konpetentziaren arabera (irakurketa edo matematika) bereiziko dira
- Ikasle berak bi taldetan parte hartu ahal izango du, bi konpetentziak indartzeko beharra badu.
- Taldeak 5-10 ikasle.
- Saio horiek ez dira irakasgaiak berreskuratzeko eskolak.
- Metodologia aktiboak, baliabideak eta materialak txertatzeko aukera gisa.



Errefortzu saioen irakasle arduradunak

- Irakasleen **bi modalitate**:
 - **Ikastetxeko irakasleak**: He-indartuzi esleitutako eskola-lanaldiaren zati bat dute.
 - He-indartuz-erako berariaz kontratatutako irakasleak (**berriak**).
- **Saioak hasi aurreko orduak**:
 - **Hasierako ebaluazioa** aplikatzen eta zuzentzen laguntzea, eta errefortzuak jasoko dituzten ikasleak identifikatzen laguntzea.
 - Proba diagnostikoen **emaitzak** eta ikasleen ibilbide akademikoa **aztertzea**.
 - **Koordinazio-bilerak** tutoreekin, sailekin eta zuzendaritza-taldearekin.
 - Hezkuntza Sailak eta Berritzeguneak emandako **material komunak ezagutzea eta egokitzea**.
 - **Taldeak planifikatzea** eta saioak indartzea.
 - **Hasierako prestakuntza**.




Errefortzu saioen irakasle arduradunen funtzioak




Funtzioa	Deskribapena
Plangintza didaktikoa	Indartze-saioak diseinatzea, ikasleen helburuekin bat etorriz.
Hasierako ebaluazioa eta jarraipena	Ikasleen konpetentzia-maila identifikatzea eta haien bilakaeraren jarraipen sistematikoa egitea.
Koordinazio pedagogikoa	Inplikaturako taldeetako tutoreekin eta irakasleekin komunikazio erregularra izatea.
Jarduera-erregistroa	Asistentzia, egindako jarduerak eta ohar garrantzitsuak dokumentatzea.
Jarraipen-bileretan parte hartzea	Ikastetxeak edo Berritzeguneak antolatutako bileretara joatea, hala eskatzen denean, ezarpena egiaztatzeko.

Erantzukizunak (rolak)



- Zuzendaritza: plangintza eta gainbegiratzea.
- BeA: koordinazioa eta jarraipena.
- Irakasleak: saioak, ebaluazioa, erregistroa.
- Berritzegunea: aholkularitza, laguntza eta baliabideak.
- Familiak: baimena + lankidetzak aktiboak.

Kronograma nagusia




Data	Jarduera
Irailak 29 – Urriak 3	Hasierako probak DBHko ikasle guztiei (Irakurketa eta Matematika)
Urriak 13 – 17	Aurrebaluazioa eta ikasleen hautaketa
Urriak 20 – 24	Irakasleen formakuntza Familiak informatu eta baimena jaso
Urriak 27	He-Indartuz saioen hasiera
Hilean behin	Tutoretza saioak irakasleekin
2026ko Ekainaren 19	Ikasleen azken txostenak

Jarraipena eta ebaluazioa

Erregistro sistematikoa: ikasleak, saioak, gorabeherak

Azken txostena ekainaren 19ra arte

Kanpoko laguntza: Berritzegunea + Ikuskaritza



Azken txostena
Ekainaren 19rako

2 atala:

Hasierako proba



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hasierako proba

Irailak 29- Urriak 3

- DBHko **ikasle guztiek**.
- 2 proba:
 1. Matematika konpetentzia
 2. Irakurketa konpetentzia (Euskeraz eta gaztelaniaz)
- Isei-Iveitik koordinatzaileari aplikatibo bat euskura jarri, **ikasleek kode bat** izango dute (Ebaluazio Diagnostiko formatua) .
- Emaitzak Isei-Iveik prest izango ditu **Urriaren 13**rako.




Hasierako proba

Irailak 29- Urriak 3

MATEMATIKA KONPETENTZIA

- Maila bakoitzerako proba desberdin bat (DBH 1,2,3,4)
- Probak curriculumeko KE, EI eta OJ oinarrituta .
- Probak 3-4 egoera dituzte eta egoera bakoitzeko hainbat item (guztira 28 item inguru).
- Item gehienak erantzun zuzena aukeratzeko dira.



Hasierako proba

Irailak 29- Urriak 3



IRAKURTZEKO KONPETENTZIA (2 proba)

EUSKARA



2 testu

15 galdera guztira

GAZTELANIA



2 testu

15 galdera guztira

3 atala:

Irakasleen formakuntza



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Irakasleen formakuntza

Urriak 20-23

Urriak	Lamiako Berritzegunea (Leioa)	Zarautz Berritzegunea
20 eta 21	Matematika konpetentzia	Irakurketa konpetentzia
22 eta 23	Irakurketa konpetentzia	Matematika konpetentzia
BIZKAIA + ARABA		GIPUZKOA

- **Nortzuk:** He-Indartuz irakasleak.
 - Ikastetxe bakoitzetik 2 irakasle gehienez.
 - Bakarra badago edo irakasleak berriak badira mintegi burua baita.



Irakasleen formakuntza

Urriak 20-23

- **10 orduko** formakuntza **bi egunetan** banatuta.
- Orduategia: **9:00-14:00**
- Formakuntza:
 - Konpetentziaren sarrera.
 - He-Indartuz egitura eta metodologia.
 - He-Indartuz baliabideen aurkezpena eta Sharepoint sarbidea.
 - He-Indartuz jarraipena eta tutoretzak.



Galderak egiteko tartea



Eskerrik asko!

Hezkuntza Saila © 2025 by Bidelaguna Programa is licensed under CC BY-NC 4.0.

